

Arrasate

P R E S S

1996ko
Otsailak 2
306. zenb.

KULTURA

**Luis
Mendarozketa**

KIROLAK

**Erik Martin,
AUKEA saria**

IRITZIA

Xabier Letona

HIRIGINTZA

**Parrokiako
obrak**



Etxebizitza

erosteko pausoak

DENBORARA

zurre

ESKUETAN

Bakarrik 8 egunetan,
zurre azala gazteago.


LANCÔME
XXI mendean kosmetikaren
mundua erreboluzionatuko
duen berrikuntza
aurkezten dizu.

PRIMORDIALE
bakarrik 8 egunetan, era
ikusgarrian zurre azala gaztetuko
duen aurpegiko tratamendua.



*Gainera aste honetan estetizista bat
egongo da dendan tratamendu honi
buruz edozein aholku emateko.*

Opari hau zuretzat da.



Zabaleta
Iurrindegia

Maisu Arano (Portaloia), 2
Tfnoa: 79 12 32
ARRASATE



LANCÔME
PRODUKTOak
EROSTEAGATIK
OPARIA:

- Motxila.
- Ezpanbarra, 76. zkia.
- Tresor 7,5 ml.
- Souplesse 30 ml.
- Renergie 7 ml.
- Hydra-Principe 30 ml.

Eskaintza hau otsailaren
Setik 10era arte da baliagarria.

Zazpiak bat

Oraingoan Paue (Pau frantsesez) aldera jo dut, eta hemen ere "Ça va?" (Ondo?) da ohizkoena. "Ça va bien" (Bai, ondo) erantzun behar normalean. Justo-justo entendiduteko moduan berba egin eta aurrera. Bai, frantsesez egiten dute berba. Normala, Gabatxolandian nago, Frantzia alegia, Pirineo Atlantikoetako hiriburuan. Eta Europako tribu indio bateko kide moduan, hau da, euskaldun moduan, gogoeta ugari datozkit burura. Pauen egonda Euskal Herriaren etorkizuna baikortasun osoz, eta sasoi hauetan baikortasuna ez da txantxetako, euskal lurraldeetan ikusten dut. Euskara nagusi ikusten dut, eta baita euskal nortasuna ere. Euskal Herria subirano. Azken finean, hemen ikusten dudanarekin konparatuta, euskaldunok oso aurreratuta gaude eta. Okzitanoekin konparatuta jadanik garaile gara esan baitaiteke.

Baina zertara dator guzti hau? Hemen norberaren begiek bi errealtate ikusten dutelako: bata frantsesa, guztiz nagusi dena; eta bestea okzitanoa, ia ezer ez dena, errealtate ikustezina ia, ikusi baino norberaren begiek desio dutena.

Bai, sasoi batean gaur egungo Frantziako hegoalde osoan -Frantziako herena baino gehiago- kultura okzitanoa nagusi zen; trobadore okzitanoen kultura Europako inportanteenetakoa zen XI., XII., eta XIII. mendeetan. Harrezkero, apurka

okzitanoa botere bakoien hizkuntza bilakatu da. Gaur egun -eskerrak okzitanoek ez didatela hau irakurriko!- okzitanoa desagertzen ari da. Filologoek itzulera bako hizkuntzen artean kokatzen dute.

Hala ere, badira Okzitanian alde ari diren talde txikiak, ikasle gutxi baina badituzte euren ikastolak (kalandretak), irriti saioak... Pospolua ez da oraindik itxungi. Errealtatearen kontra ere, ni Okzitanian nago.

Elkartasun txinpartak erakusten dijuen Okzitanian gainera: euskal presoek aldeko kartelak ikusi ditut unibertsitatean; eta hurrengoan, emozionatuta, euskal presoek aldeko informazio mahai bat ere bai (mahaiaren atzeko mutilak okzitanoa dela dio, ez frantsesa); eta ostegun arratsalde batean 40 lagunek, Iparraldetik hurbildutako gazte baten "Presoak Euskal Herrira" oihuaren azalpenak entzun dituzte adi-adi; Paueko espetxearen aurrean, bertan espetxeratutako euskal preso biekiko elkartasun kontzentrazioa...

Hain gutxi izan, eta oraindik bada elkartasunerako lekuri. Harrigarria, miresgarria eta esperantzagarria. Zazpi lurralde historiko ditu okzitanian: Gaskonia, Limousin, Auvergne, Guiana, Dauphinat, Provença eta Lengadoc. Auskalo nola, baina zerbaitetan behintzat etorkizun bateratua behar dugu: Zazpiak bat!

XABIER LETONA



Alkoholarekin arazoak daukazazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitateak:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barrandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarra, Koldo Zubizarreta, Joseba Vailés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketaren ardura:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Azala: Goio Arana

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Zaldibar a sako

Pasa den igandean, bazkal aurretik, Zaldibarrera joatea erabaki nuen, bertako lehiaketako partidu bat ikusteko asmoz.

Zoritxarrez, futbol gutxi ikusteko aukera izan genuen bertan bildu ginenok; hori bai, iskanbila ez zen falta izan. Joku gogorra eta irainak izan ziren nagusi, baina benetan penagarria izan zen partidua amaitu eta bi taldeetako jokalaririk batzuk eskuetara eta ukabiletara iristea.

Taldeen izenak aipatzeak ez du merezi, ez zen kasu puntual bat izan eta.

Oso tristea da herriko kuadrilak horrela bukatzea, are gehiago partidu bat "bakarrik" zela kontuan hartuta. Nik lotsa sentitu nuen, eurak itxuran ez, azken finean bi puntu zeuden jokoan eta irabaztea da helburu nagusia, ezta?

Azkenik esan arbitroak ez zuela dena ondo egin, baina mutilok, bere amak ez zuen horren errurik.

J. O.

Eta zuek zergatik ez?

Lehenik eta behin barkamena eskatzen diogu, igandean Zaldibarren gure neurketa ikusten egon zen jendeari, azkenean partidua oso era zakarrean amaitu baitzen. Batek baino gehiagok biraoika amaitu zuen neurketa, baina ez, komunikabideetan azaldu den bezala, ukabilkaldaka.

Domekan Koka J. eta Cerveceria Leniz taldeen arteko partiduan izandako iskanbilaren ostean, taldea biak eta epaile lanak egiten ari zen taldea asteleheneko batzarrera deituak izan ginen sortu zen

zalaparta hura argitzeko asmoz. Beraz, han azaldu ginen hiru taldeak eta denok arazoarekiko gure iritzia eman ostean, normala den bezala giroa piska bat berotu zen. Antolatzaileetako bat talde bateko partaidea iraintzeraino heldu zen eta azkenean isiltzen ez baginen kanporatuak izango ginela esanez azken erabakiaren zain gelditu ginen, isilik. Esan beharrra dago batzar edo katxondeo hartako partaideak zeintzuk ziren: "E" taldean kanporatuak izan garen talde bien atzetik eta lehen sailkatzeko aukerarik gabe zeuden hiru ekipo desberdineko partaide bana (kanporaketa bi hauekin beraien aukerak asko indartu dira), talde berean aurreko postuetan ari den talde bateko partaide bat, aurreko astean arazo berdin edo okerrago bategatik abisatuak soilik izan ziren beste taldeko hiru partaide eta azkenik beste talde batzutan jokatzeko ari diren jokalaririk bi, eta batzar hartako partaideak meziprezuz eta arrokeriaz tratatu gintuen pertsonaia neutro bat. Kanpoan sententziaren zain geundela, geroago kanporatuak eta abisatuak izango ginen taldekideen artean jadanik adostasuna zen nagusi; horrela sententzia entzun genuen arte. Kanporatuak geundela esan ostean epaia iri buruzko iritzia eskatu zigun sasi-epaimahai hark. Iritzia, Zaldibarko antolatzaileengan jarrita neukan konfidantza apurra lau horma zikin haiegan geratu zen atxikirik. Antolatzaileek kasu hauetan azaldu beharko zuten objetibitatea, subjektibitate bihurtu zen arratsalde hartan. Guk ez dugu epai aldaketarik eskatzen, eskatzen dugun bakarra epaiak talde denendako berdinak izatea da, bai antolakuntza barneko talde, antolatzaileen lagun talde edo edozein talderentzat, kasu honetan gertatu ez den beza-

la. Oraindik buruan daukadan galdera honi erantzungo al diozue? Eta zuek zergatik ez? Gora Koka!

JERONIMO

Eskola Mapa

Deba Garaiko Eskola Mapadela eta, zenbait burutazio egin nahi ditu STEE-EILAS sindikatuak:

Gurasoek ikastetxe mota aukeratzeko duten eskubidearen izenean justifikatzen dira ikastetxe pribatuei emandako subentzioak. Baina, Eskola Mapak, hainbat kasutan, eskubide bera eragozten dio sare publikoari, praktikan ez diolako ziurtatzen eskaintza egokirik herri-gune guztietan. Kasu hauetan, sare publikoak irakaskuntzaren ardatz nagusia izan beharrian, osagarria bihurtzen da.

Aipagarria, baita ere, Eskola Mapaz tratatzeko erabili den markoaren desegokitasuna. Izan ere, bilgunetako Eskola Kontseiluek presaka eta korrika eratu ziren, uztailan argitaratu zelarik EHAA osaketarako deialdi ofiziala. Inplikatuaren arteko debate zabal bat ireki beharrian, bilgune horietara eraman zuen Hezkuntza Sailak Eskola Mapa; horrela, debatega, azalekoa, urria eta gatazka sortzaile izatera kondenturik zegoen hasieratik. Izan ere, bilgunean aurkeztu zena ez zen Deba Garaiko Eskola Mapa, baizik eta zonalde honetako ikastetxe publikoena, hain zuzen ere. Baina bilgunean ikastetxe pribatu kontzertatuak ere ordezkaturatu zeuden.

Zeresan nahi zuen honek? Ba sektore pribatuak bere eskuan zeukala Publikoari buruzko informazio guztia, bai Administrazioak egindako Eskola Mapa, eta baita ere, ikastetxe publikoek eginda-

ko aldaketa proposamenak, argumentazio eta guzti. Berriz, Publikoak ez zuten ikastetxe pribatuen egoera (eta are gutxiago euren asmoak) ezagutzeko eskubiderik, ezta iritziak emateko aukerarik.

Marko ezegoki honen aurrean, Publikoak bilguneko Eskola Kontseilutik kanpo antolatu ziren, herri bakoitzeko beharrak unifikatzeko eta Administrazioak jarritako marko ez-justu horri modu amankomun batez erantzuteko. Horrela sortutako dinamika baikorra izan da, 96-97 ikasturteari begira herriz herri Publikaren hezkuntz eskeintza bateratu eta orokor bat egiteko bideak jarri direlako, 2 urtetik hasita 20 urtera arteko eta denon artean gauzatutako hezkuntz ibilbide propioa eskaintzea duelarik helburutzat.

Tamalez, sare pribatu kontzertatutako ordezkariak, modu ez demokratikoan erabili dute bilgunean egoteak eman dioten abantaila: Publikaren proposamenak aztertu ondoren, S.F.X. Ikastola, S. Viator Ikastola eta Hezibidek Udaleko alderdi politikoei idatzi bat igorri diete. Bertan, Eskola Maparekiko adostasuna azaltzen dute, eta Eskola Publikoak Arrasateko erdigunean bere lekua galduta duela gaineratu ondoren, Eskola Publikoaren "zentzurik gabeko pretentsio hori ez apoiatzea" eskatzen diete.

Badakigu ikastetxeen arteko interesak ezberdinak izan daitezkeela, kontrajarriak sarri, baina ezin dugu ulertu nola eskatu diezaiokkeen Udalaririk beste sarearen aurkako jarrera hartzeko. Ez zaigu zintzoa iruditzen.

Aipatutako ikastetxeen Zuzendariak sinatutako eskaera hori, ziur gaude ez dela bertako langile guztien iritzia.

**DEBA GARAICO
STEE-EILAS**

Asko gastatzen duzu jokoan?



Fernando Varela
Taxista
(28 urte)

Asteazazpihun bat pezeta. Once eta Gabonetako loterian jokatzen dut. Ez zait ezer atera sekula, noizbait botatakoa.



Arantza Madina
Dendaria
(61 urte)

Gutxi gora behera mila pezeta gastatzen ditut astean. Oncen jokatzen dut. Ez zait sekula ezer irten.



Jose Ramon Saenz de Gordo
Postetxeko langilea
(37 urte)

Bostehun pezeta astero: kiniela eta Oncen. Ez zait inoiz irten. Noizbait botatakoa atera dut.



Aitor Etxabe
Langabetua
(28 urte)

Beno, erdibana mila pta. Bakoitzak bostehun pezeta astero. Primitivan jokatzen dut ostegun eta zapatuetan bakarrik. Behin bosteko bat atera nuen, 219.000 pta. baina lagun pila baten artean.



Marilu Fernandez
Ikaslea
(19 urte)

Normalean ez dut jokatzen dirurik, baina oraintxe hasi naiz astebururo futboleko kinielak jokatzen. Normalean ehun eta larogei pezeta inguru. Inoiz ez zait ezer tokatu.




Pedro Mertxan
Langilea
(41 urte)

Idearik ez, bostehun bat pezeta gutxi gorabehera. Aste batean bai eta bestean ez. Inoiz ez zait ezer irten.



Aitor Yarza
Langabetua
(28 urte)

Oso gutxi; normalean ez dut dirurik jokatzen, noizean behin loteria. Ez dakit noiz, botatakoko bat tokatu zitzaidan eta kitto!



Imanol Etxeberria
Loteria Saltzailea
(26 urte)

Hiru mila pezeta hilero, bi edo hiru boleto egunero. Onceren zozketa eta Gabonetako loteria jokatzen ditut. Behin 10.000 pta tokatu zitzaidan.



OPEL

**Larunbat goizetan
tailerra zabalik
8etatik 12.40etara.**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 2

Egunez eta gauzez: Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola

Larunbata 3

Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.
 10ak arte: Irizar. Erguin.

Igandea 4

Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.
 10ak arte: Amezua. Santamaina

Astelehena 5

Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara.
 10ak arte: Ruiz. Maala.

Asteartea 6

Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara.
 10ak arte: Morales. San Andres.

Asteazkena 7

Egunez eta gauzez: Puy. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Osteguna 8

Egunez eta gauzez: Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Español. Iturriotz.

2 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Atrapado" 7etan eta 10etan.

• **DIPOSITIBA EMANALDIA**
 Jabier Juanesen "Gipuzkoako Herriko ihauteriak Abaltzizketa Etxeberria" diapositiba emanaldia arratsaldeko 7etan Monterronen.

• **ASANBLADA SEBERON**
 Presoen aldeko asanblada Seberon arratsaldeko 7etan.

3 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Golden eye" 5etan, 7.30etan eta 10etan.,

• **LUDOTEKA IBILTARIA SAN ANDRES AUZOAN**
 Txatxilipurdiko Ludoteka ibiltaria San Andresko auzo alkatetzan goizeko 11etatik ordu-bata arte. OHOKO 1mailatik 8. maila arteko ikasleei zuzenduta

• **SAN BLAS EGUNA**
 Aretxabaletako Sailuenteko ermitan meza izango da goizeko 11etan San Blas eguna ospatzeko. Mezan eramaten diren produktoak bedekinkatu dira.

• **ENKARTELADA PRESOEN ALDE**

Eskualdeko enkartelada arratsaldeko 7etan Oñatin gose greban dauden presoekin elkartasunean. Lau arrasatear daude une honetan gose greban: Pilar Mondragon, Arantza Sasiain, Josu Mondragon eta Pako Robles.

4 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Golden eye" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **SANTA AGEDA BEZPERA**
 Santa Ageda korua kalera irtengo da kantuan.

ARKITEKTURARI BURUZKO ERAKUSKETA

Otsailaren 16tik martxoaren 15era "Arkitekturak Arrasaten" erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

TAICHI IKASTAROA

Astearte eta ostegunetan arratsaldeko 8.15etan Musakolako Parroki Aretuan. Informazio gehiagorako deitu 71 41 91 zenbakira.

DANTZA IKASTAROA

EKIN elkarteak antolatutako dantza ikastaroaren barruan, oraindik plaza batzuk geratzen dira. Ikastaroa asteazkenetan arratsaldeko 5.15etatik 6.15ak arte AED-ko lokalean ematen da. Argibiderik nahi izanez gero 77 12 28 zenbakira deitu.

ARRASATE KANTARI II

Kantu jaialdi honetan hamabost urtetik gorako edonork har dezake parte. Talde edo parte hartzaile bakoitzak bi abesti kantatuko ditu eta gehienez 6 minutu luza daiteke. Musika estiloa librea da. Abestiak euskaraz izan beharko dira. Jaialdian parte hartzeko izena ematea AEDn egin beharko da otsailaren 16a baino lehen. Jaialdia martxoaren 23an jzango da



Otsailaren 4ean San Blas bezpera dela eta, Kantuan irtengo da Arrasateko Santa Ageda korua. Beti bezala, herriko txoko guztietara heltzeko asmoz, bi taldetan banatuko dira. Jaso-tako dirua behartsuentzat izango da.

5 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Golden eye" 7etan eta 9.30etan.
- **SANTA AGEDA EGUNA**
- **KONTSUMOARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: Elikadura eta nutrizioa arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Jubilatuta Etxeek antolatuta.
- **HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIAK**
San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta Olaten arratsaldeko 6etan. Gaia: "Lehen hezkuntza ikastolan". 5 eta 6 urteko ikasleen gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 6.30etan beste hitzaldi bat San Andresko alkatetzan, eskola adinean dauden ikasleen gurasoentzat.

JUBILATU ETXEETAKO OHARRA

Otsailaren 5tik martxoaren 30ra Toki Argi, Musakola, Abaroa eta Uribarri jubilatuta etxeetako bazkideak euren elkartetik pasatu behar dira karnetaren zigilu berria jartzeko. Epe horretan pasatu ez, eta zigilua jartzen ez duen bazkideak, ez du jubilatuta etxearen zerbitzuak erabiltzeko aukerarik izango.

TXIRRINDULARITZA ZUZENDARI IKASTAROA

Txirrindulari zuzendari titulua lortzeko ikastaroa Elgoibarko Kultur etxean otsailaren 9-10, 16-17 eta 23-24an. Ostiraletan arratsaldeko 6.30etatik aurrera. Larunbatetan goiz eta arratsaldez. Deba Garaiko euskara eta kirol zerbitzuek antolatuta.

6 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Golden eye" 7etan eta 9.30etan.
- **KONTSUMOARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: "Kontsumitzaileen esku-bideak" arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Jubilatuta etxeek antolatuta.
- **HITZALDIA ERGUINGO HERRI ESKOLAN**
Gaia: "Irakaskuntzaren sistema berria, Logseri buruzko informazio orokorra". Hizlaria: Eibarko PATeko asesora bat. Erguingo herri eskolan arratsaldeko 6.15etan.
- **HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIAK**
Gaia: "Lehen hezkuntza eskolan". Arratsaldeko 6etan Urribarrin. 5. eta 6. urteko ikasleen gurasoei zuzenduta. S.F. Xabier ikastolak antolatuta.

HITZALDIA AEDK ANTOLATUTA

Txetxeniako Kaukasoko Gatazkari buruzko hitzaldia Monterronen arratsaldeko 7etan. AEDK antolatuta.

ERDU AEK EUSKALTEGIKO MATRIKULA

Arrasateko Erdi AEK euskaltegian izena emateko kanpaina zabalik otsailaren 16ra arte. Maila eta ordutegi guztiak.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Otsailaren 12tik 25era, "Geure mundua. Proiektu solidarioa" gaiari buruzko erakusketa Monterronen, Langile Komisioak antolatuta. Ordutegia: egunero arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

7 ASTEAZKENA

- **KONTSUMOARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: "Ekintzak elikadura eta nutrizioa" arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Jubilatuta etxeek antolatuta.
- **HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIAK**
Gaia: "2 urte ditut, zer aurkituko dut eskolan?". 2 eta 3. urteko umeen gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 6etan Olaten. Ferixalekuan berri, O.H.Oko 7. mailako ikasleen gurasoentzat beste hitzaldi bat. Gaia: "Zer da D.B.H? zer aldaketa dakar erreformak?". 6etan euskaraz, 7etan erdaraz. S. F. Xabier ikastolak antolatuta.
- **IÑURRATEGI ANAIEN HITZALDIA**
"Cho Oyu" eta "Lhotse" mendiei buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 8etan Amaia antzokian

8 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"Seven" 7etan eta 9.30etan.
- **KONTSUMOARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: "Kontsumitzaileen esku-bideei buruzko ekintzak" arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Jubilatuta Etxeek antolatuta.
- **HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIAK**
O.H.Oko 6. mailako ikasleen gurasoei zuzenduta. Gaia: "Zer da D.B.H? zer aldaketa dakar erreformak?". Ferixalekuan arratsaldeko 6etan euskaraz, 7etan erdaraz. Santa Teresan 2 eta 3 urteko umeen gurasoentzat. Gaia: "2 urte ditut, zer aurkituko dut eskolan?". Arratsaldeko 6etan. S. F. Xabier ikastolak antolatuta



IÑURRATEGI ANAIEN HITZALDIA

Otsailaren 7an asteazkena, "Cho Oyu" eta "Lhotse" mendiei buruzko hitzaldia. Hizlariak: Felix eta Alberto Iñurrategi. Arratsaldeko 8etan Amaia antzokian.

“Kooperatibek eragina izan dute, bereziki gauza batean: sortu den aberastasuna hobeto banatu delako. Ez behar bada ondo, baina hobeki banatu da. (...) Azpimarratu nahi dut, ez da konpetitibitatea irtenbidea, irtenbidea elkartasuna izan behar da”.

“Pozik egon beharra daukagu, azkenean EBZaren asuntuan denok sartu ahal izan garelako”.

Xabier Zubizarreta,
urtarrila 27.



HERRI IRRATIA

“CIEaren ekimenak, batez ere, formazio okupazional programengandik irteten diren ekimenei erantzun nahi die, eta hasieran laguntza behar duten beste batzueri. (...) Ezin dugu esan barik utzi Arrasaten ekimen industrialak sortzeko lana, enpresa gizon bakar batzuren eta kooperatiben gain utzi dela. Uste dut Arrasateko herriak ezin duela luxu hori izan eta Arrasaten ez dagoela behar besteko lurzoru industrialik etor edo sor daitezkeen ekimenei erantzuteko”.

Jose Mari Loiti,
urtarrila 27.



HERRI IRRATIA

“Dendan lanean hasi ondoren konturatu ginen hazkundera izan zezakeela, baina ez zela bost familia aurrera ateratzeko bezalakoa izango. Horregatik, alde batetik ilusioz eta bestetik beharrez, kirol munduko beste arlo horretan hasi ginen, lantegian”.

Esteban Uribesalgo,
urtarrila 27.



HERRI IRRATIA

Zer dela eta sortu dira gorabeherak Diputazioaren eta Aixolaren artean?

Deba Garaiko eta Beheko 1.600 ikasle gara Aixolako bazkide, eta elkarteak zera eskaintzen du: hiriburuetara ikastera joan behar dutenendako autobus zerbitzua. Arrasaten ere hainbat ikasle da egunero-egunero Aixolaren autobus zerbitzua erabiltzen duena.

Elkartea sortu zenetik, orain dela hiru urte, ikasle unibertsitarietara eta ez unibertsitarietara erabiltzen dituzte autobusak. Horregatik, iazko abenduan Gipuzkoako Diputazioaren Garraio Sailak idatzi bat bidali zigun ikasle ez unibertsitarietara eta unibertsitarietara autobus bera ezin zutela erabili esanez. Legez kanpo ari ginela ere esaten zen idatzian, eta 250.000 pta-ko isuna jarri ziguten. Guk erabat harrিতuta hartu genuen eskutitza eta asanbladan, erabaki genuen ikasle ez unibertsitariak kalean ez genituela utziko.

Diputazioaren ustez legeak esaten du unibertsitarietara doazen ikasleak eta unibertsitarietara ez doazenak ezin direla autobus berean joan. Aixolaren iritziak, legeak esaten du helburu bera izan behar dutela ikasleek, eta gu ikastera joaten garenez, badugu helburu bera. Benetan ez dugu ulertzen zein kalte egiten duten ikasle ez unibertsitarietara.

Azkenaldian hainbat bilera izan dugu Garraio diputatuarekin eta joan den astean Jose Julian Irizar, diputatuak, arazoari irtenbidea aurkituko diola eta guztiok autobus bera erabiliko dugula esan zigun. Diputatuaren esanetan formula legala aurkitzea da gakoa.



Jon Iglesias
Aixolako lehendakaria



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

A-20 eztabaidagai plenoan

Joan den ostiraleko plenoan berriro ere argia ikusi zuen A-20 areako auziak. Gai horren inguruan, plenoak negoziaketa-rako borondatea azaltzea eskatu zuen Isabel Gallastegik. Xabier Zubizarretak proposamena iraingarria iruditzen zitzaiola adierazi zuen. Alkatearen esanetan, orain arte negoziatzen ibili dira eta irtenbidea aurkitu arte horretan jarraitzeko asmoa dute. Azkenean bozketa egin zen eta HB eta EB kenduta, gáinontzekoak EAren proposamenaren alde agertu ziren.


Ezker Batuaren eskaria, elkarketa zibilen udal erregistroa sortzea, alderdi guztiek onartu zuten. Alkateak hala ere esan zuen, Udalak ezin duela agindu prozesu judizialetan balioa izango ote duen.

Antzerkia ikasleendako

Teatro Gasteiz taldeak, "Aurpegién Atzealdea" antzezlan eskaini zien lehen hezkuntzako haurrei. Astelehenean San Frantzisko Xabier, La Merced, San Andres, Musakola eta Erguingo umeak izan ziren obra ikusten. Asteartean, berriz, San Viatorreko ikasleek izan zuten aukera.

Informazio saila

Irakaskuntzan ematen ari diren aldaketekz infor-



San Viatorren ingurugiroa aztergai

"Ingurugiroa legearen aurrean" gaiak hitzegiteko, asteartean eta asteazkenean III. Mintegia burutu zen San Viatorren. Aurkezpen ekitaldian Esther Larrañaga, Ingurugiro Sailburuordea izan zen. Sailburuordeak adierazi zuen, Euskal Autonomi Elkarteak ez dago ingurugiroa babesteko legerik eta momentu honetan legea egiten ari direla aurreratu zuen. Moduluetan ikasten ari diren ikasleek gain, hainbat gonbidatuk ere parte hartu zuen mintegian.

matzeko helburuaz, informazio saila zabaldu du San Frantzisko Xabier ikastolak. Alde batetik dohaineko telefonoa jarri dute, aurtengo matrikulazioaren berri eman edo erreklamazio eta kexuak jasotzeko. Informazioa eman asmoz, gainera, hitzaldiak eta mahainguruak ere antolatu dituzte. Lehen aldia da ikastola baten horrelako saila jartzen dela.

Lapurreta gehiago

Urtarrilaren 25ean bi lapurreta gertatu ziren Doctor Bañez kalean. Avenida tabernatik 200.000 pta. eraman zituzten, eta Serpatik 80.000. Joan den ostiral arratsaldean, berriz,

Foruen Enparantzako etxebizitza batean sartu ziren eta diru apur bat eraman. Etxebizitza batean sartzea lortu bazuten ere, aldamenekoaren atea zabaltzen ere ahalegindu ziren.

Igande gauean Oxara clubean sartu ziren, bertako leiho bat apurtu ondoren. 180.000 pta., tabakoa eta whisky botila batzuk eraman zituzten lapurrek.

Lapurretak ugaritu direla eta, Ertzantzak arretaz ibiltzea eta etxeko atea ondo ixtea eskatu du.

San Felipe Apostolek batzar orokorra

Urteko batzar orokorra egin zuen domekan San

Felipe apostol elkarteak. Batzarrean aipatu zenez, iaz 260 arrasatearrek eman zuten izena elkarteak, eta gaur egun 11.068 bazkide dira guztira. Hala ere, jende gazteak izena emateko ohiturarik ez duela adierazi zuten. Horrez gain, kuotak ere gaurkotu ziren.

Goizeko 11etan meza egin zen iaz hil ziren 71 bazkideen oroimenez.

Eskoriatzarraren arrastorik ez

Mari Cruz Galdos, azaroaren 30etik galduta dagoen emakumea aurkitzeko ahalegina egin zen zapatuan. Arrasate eta Aretxabaletako inguruak miatu zituzten mendizale, udaltzain, ertzain eta beste zenbait herritarrek baina ez zuten eskoriatzarraren arrastorik aurkitu. Goizeko 9etatik arratsaldeko 5ak arte ibili ziren inguruko zulo eta leku ezkutueta begira.

JAIOTZAK

- Xabier Etxezarreta Argarate. Urtarrilaren 18an.
- Garazi Romero Sanchez. 18an.
- Josu Aranzabal Heriz. 19an.
- Jone Zabalo Caballero. 20an.

HILDAKOAK

- Florencio Andres Narro. Urtarrilaren 20an. 88 urte.
- Petramelia Aranburu Cano. 20an. 92 urte.
- Mercedes Lorenzo Souto. 22an. 80 urte.



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak Lehioak • Ateak Eskailerak • Armairu enpotratuak Eta abar **MATERIALEN SALMENTA**

Erakusketa eta almazena: Kale Txiki, 3 - behea Tfnoa: 77 11 20 Faxa: 77 11 20 ARRASATE

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeko gosoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeko ardo gorria eta beltza
Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)



* Mikel Lezamiz

Berriro eskolara

Lan munduan azken hogeitau urteotan aldaketa izugarriak ikusten ari gara. Orain dela hogeitau urtera arte langile gehienek ez zuten behar idazten eta irakurtzen jakiterik, lanpostuek ez baitzuten horrelakorik exigitzen.

Baina azken urteotan, batez ere industri lantegiek, sekulako aldaketak izan dituzte, eta gaur egun ez da nahikoa idazten eta irakurtzen jakitearekin.

Orain hogeitabost urte Maestria titulua zeukanak goi mailako lanpostuak betetzen zituen, eta gaur egun makina askotan titulu hori edota maila bereko formakuntza eduki behar dute lanpostua ondo betetzeko. Gaurko makinek martxan jarri, kalitate kontrolak egin, pro-

grama aldaketak eta mantentimendua ere egitea exigitzen dute.

Etorkizunari begira MCCko kooperatibetan azterketa simple hau egin dugu: bazkidegoaren %50a 45 urtetik beherakoa da, eta bazkidego kopuru osotik erdiek ez dute inolako pres-

.....
“Bazkidegoaren erdiak ez du prestakuntzarik eta 2.015. urtera arte egon beharko du lanean, eta auskalo orduan zer nolako makina superkonplikatuak edukiko ditugun”

takuntzarik, oinarriko heziketak bakarrik dauzkate, alegia. Honek esan nahi du 2.015. urtera arte izan beharko dutela lanean, eta auskalo orduan zer nolako makina superkonplikatuak edukiko ditugun.

Epe luzerako prestakuntza baten beharra zegoen eta horretan hasi gara: titulurik ez daukatenei aukera eman prestatzen hasteko, eta urtebete terdian Erdimailako Teknikaria (Lehengo Maestria edo FP II-ren antzeko maila) titulua lortzeko ahalbidea eskeini. Era berean, goimailako Teknikari ikastaroarekin ere hasiko gara datorren urrian.

Beraz hiru urtetan, iazko urrian hasita 328 ikasleendako plan orokor bat hasi dugu maila eta pertsona guztientzat irekia (Arrasateko Eskola Politeknikoan gehienak, baina baita Goierri eta Markinako eskola Politeknikoetan ere).

Eta datorren astean hain zuzen, beste bi talde berrirekin hasiko gara oinarriko prestakuntza ematen, datorren urrian Erdimailako Teknikari ikastaroa egiteko prestatuta egon daitezten.

Hala ere garbi utzi nahi da aukera hauek ez direla promozionatzeko asmoarekin sortu, bihar etzirako lanpostuen betebeharre hobeto erantzuten jakiteko baizik.

* MCCko SOZIOLOGOA

USTEAK USTE

KPB

Joan zen astean Antzuolako alkate ohia kondenatu zuten bere garaian ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik. Beste 108 alkateri ere bere txanda helduko zaio, tartean Arrasatekoa.

Eta maiatzaren 8an Kode Penal Berria indarretaruko da. Insumisioari dagokionean aldaketa handiena, heriotz zibila delakoa jarriko dutela kartzelaren orde: Zerbitzu Sozialari uko egiten diotenak libre, eta soldaduzkari ezetz esaten diotenentzat 2 urteko zigorra, baina baldintzapekoa bi urtetan jarriko dutenez, printzipioz ez da hauetako inor ere kartzelara joan beharko. Hala ere Estatuak (goburuetatik udaletxeetara) gazte honi ez dio lanpostu, beka edo beste diru laguntzarik emango. Helburua, gogor zigortzeaz batera gazte hauek preso izateak gizartean sortzen duen alarma isilaraztea da. Aritu batzuen ustez KPBak izango dituen lehen zuzenketak gai honetan etorriko dira neurritz kanpokoak direlako. Dena dela mugimendu antimilitaristak bide berriak urratu beharko ditu bere mezua entzun dadin. Zentzu honetan alkateen jarrerek garrantzi handia izango dute.

ANDER ETXEBARRIA

BAZAR
 TOKI ON
**ELEKTRONIKA
 ARTIKULUEN
 SALMENTA**
 J. Carlos Guerra, 1
 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Lore
 Lurrindegia
 Olarte kalea, 10 ARRASATE
 Tfnoa: 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

Altzariak
 Diseinua
 Apainketa
**M
 ARENAZA**
 Bizkai, 1 ARETXABALETA
 Tfnoa: 79 08 07



Errekaren kanalizazioa ordaindu behar izateaz ados ez zeudelako hasi zen auzia besteak beste.

A-20 areako auzia konpontzeko bidean

Lortutako akordioaren berri eman ez badute ere, A-20 areako auzian murgilduta dauden aldeek, Udalak eta areako jabeek, asteazkenean izandako bileraren balorazioa egin dute. Jabeen taldeko lehendakariaren esanetan, "oraindik ez dugu behinbetiko akordiorik lortu, baina arazoa konpontzeko bidean dago". J. M. Araicok, jabeen ordezkariak adierazi duenez, "Udalak erakutsi du negoziatorako borondatea eta horregatik, irtenbidea aurkituko dugula uste dugu. Orain, hitzegindakoa formalizatu beharko da". Udalaren aldetik Hirigintzako batzordeburua, Xabier Zubizarreta eta

Haziendakoa, Ino Galparsoro egon ziren bileran. Alkatearen esanetan, "adostutako zelan egin erabaki beharko dugu orain. Ordainketak zein epetan egingo diren zehaztea falta da".

Azken erabakia plenoak hartuko duenez, Udalarekin ezezik gainontzeko alderdiekin ere bilduko dira A-20ko jabeak. Seguruenik hurrengo plenora eramango da gaia.

Udalak A-20 area urbanizatu ondoren, horren kostua ordaintzea eskatu zienean hasi zen A-20ren auzia. Area horretako jabe batzuk ez zeuden ados, Deba errekarren kanalizazioa ordaindu behar izanaz.


UGTk kanpaina hasi

"Denondako Enplegu Egonkorraren alde" lelopean kanpaina hasi du UGT sindikatuak estatuan. Kanpainari hasiera emateko gaur, ostirala, Deba Garaiko eta Beheko UGTk kartelak jarri ditu inguruko hainbat enpreetan. Lanpostu egonkorak bultzatzeko eta langabezia tasa erdira murrizteko hamar neurri proposatu ditu sindikatuak. UGTren asmoa, neurri horien berri estatuko alderdi nagusiei ematea da.

Antton Elortza aske utzi

Astearte gauean, hilaren 30ean, aske utzi zuten Antton Elortza arrasatearra. Azken 15 urteotan bizimodu normala egin duela ikusi ondoren, auzitegi nazionalerako epaileek behin-behineko askatasunean utzi dute arrasatearra. Indultua gobernua eman beharko dio. Lehenago ere egoera berean zeuden beste lagun batzuri eman diote indultua.

Antton Elortza hamairu egunez egon da Badajozeko espetxean preso.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Haizeak eragindako suteak 38 hektarea erre zituen Arrasate inguruan

Urtarrilaren 21eko haize gogorak piztu zituen suteen ondorioz, 38 hektarea lursail erre ziren Arrasate inguruko basoetan, hau da, 380.000 m².

Bedoñan 26 hektarea erre ziren eta Udala eta Garagartza tartean 12. Sute handiena hala ere Aretxabaletan piztu zen; 260 hektarea kiskaldu ziren Urkulu eta Galarrixan. Bedoñan batez ere insignis moetak pinu gaztea erre zen, hamar urte baino gutxiagokoa. Udala eta Garagartza artean, berriz, artea gehienbat erre zen, baina baita pinua ere.

Horrez gain, hainbat eta hainbat pinu erditik ebaki zituen haize bortitzak. Imanol Artola, Arrasate eta Aretxabaletako basazainaren esa-



Batez ere pinu gaztea erre zen, hamar urte baino gutxiagokoa.

netan, baserritar asko hurbiltzen ari zaio erditik ebakita geratu diren pinuak botatzeko baimen eske. Basozainaren ustez, gainera, pena handia da pinu gaztea erre iza-

na. Izan ere, sei urte ondoren hasten da pinua gora egiten, eta hasierako urteetan egin beharreko lana izaten da gogorrena. Gainera, erreta dauden pinu gazteak normalean ez dira

saltzen, zaharragoak bai.



Ohiko laguntzez gain, baserritarrek ez dute kalteei aurre egiteko laguntza berezirik izango. Hori bai, pinuak-taldean landuz gero, inguruko lursail guztiak batera laguntza handiagoa jasoko dute.

Udalaren kalteak

Udalak ere egin du bere ardurapean dauden tokiek jasandako kalteen zerrenda. Udaletxeko teiltuan hainbat teila mugitu zen, San Kristobal kanposantuan ere izan zen kalterik eta baita Santamainako alkatetzan besteak beste. Gutxi gorabehera milioi bat pezeta gastatuko du Arrasateko Udalak haizeak eragindako kalteak konpontzen.

Etxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

*25 urteko esperientzia
haurrak hezitzen.*

25^{urte}

1970 • 1995



umezaintza

HAUR-ESKOLA

San Andres, 8

(San Josepe auzoa)

Arrasate • Tfnoa: 79 01 02

**ZURE
SEME-ALABAK
ESKU
ONENETAN.**

1996-97 ikasturterako matrikula epea zabalik:

- **Epea:** Otsailak 2tik 20ra.
- **Adina:** Haur-Hezkuntzako etapa;
4 hilabetetik 6 urtera arte.
- **Ordutegia:** Goizeko 7.30etatik arratsaldeko 6ak arte.
- **Zerbitzu osagarriak:**
 - Jangela, merienda eta autobus zerbitzua.
- 4tik 6ra urtera arteko umeentzat ingelesa.

*Matrikulatzeko zatoz bertara edo deitu telefonoz
goizeko 9.30etatik arratsaldeko 5,30etara.*

Orain arte 193 milioi pta. gastatu dira San Juan parrokia zaharberritzen

San Juan parrokiaren teilatua, Erdiko-Kaleko fatxada eta Herriko Plazako fatxada berritzeak 192.815.656 pta-ko kostua izan du. Orain arte egin diren lanetatik, teilatua eta inguruak berritzeak ekarri du kostu handiena, 116 milioi gastatu dira horretan.

Horri aurre egiteko, dirulaguntza pribatu eta publikoak bilatu du Parrokiaren zaharberritzeaz arduratzen ari den batzorde eragileak. Orain arte 186 milioi pta. jaso dute guztira.

Laguntza publikoari dagokionez, Udalak 53 milioi eman ditu eta Foru Aldundiak 56. Horrez gain, herritarrei ere eskatu zaie laguntza eta era horretan 47 milioi jaso dira.



Parrokiaren barrualdea berritzea izango da hurrengo pausua.

Orain dela urtebete arrasate-arrengandik dirulaguntza jasotzeko kanpaina hasi zen, eta 1.000 familia inguru dira hilerro-hilerro laguntza ema-

ten dutenak. Beste herritar batzuk diru kopuru handiak eman dituzte. Kuoten bidez diru jasotzeko kanpaina abenduan bukatuko bada ere, segu-

ruenik kanpaina luzatu egingo da. Diru iturriekin bukatzeko, entitate pribatuek ere 9.500.000 pta. eman dute eta Parrokiak ia 20 milioi.

Fatxada gehienak eta teilatua konpondu ondoren, Parrokiaren barrualdea berritzea izango da hurrengo pausua. Barrualdeko obraren proiektua eginda dago, baina behin-betirako onartzea falta da. Hori egindakoa barruko lanak hasiko dira, baina horrek ere denbora eramango duenez hilabete batzuetan parrokiaren obrak geratuta egongo dira.

Barrualdeko obrak bukatutakoan hasiko dira Iturriotz kaleko fatxada eta dorrea berritzen.

**zinemak 100 urte...
euskarak milaka**

**ARRASATEKO
ERDU-AEK
EUSKALTEGIA**

**EUSKARA
IKASTAROAK**
Matrikula epea:
otsailak 16a arte.

Udalaren dirulaguntzaz.

**Maila guztiak.
EGA eta
ALFABETATZE.
GURASOENTZAT
KLASE BEREZIAK**

**INFORMAZIOA
ETA MATRIKULA
ERDU-AEK
EUSKALTEGIAN**

Garibai Kalea, 14-3.
Tfnoa: 77 03 69


Izena eman AEKn
euskaltegi eta barnetegietan!



Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hamahirugarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Dabid Zaitegi eta Gorka Okari*

Zaldibar txapelketa futbitoa ala boxeoa? Joan zen astean lehen asaltoa, emaitza bi talde kanporatuta. Aste honetan bigarrena, asalto hobea hiru talde kalera. Bi talde gainera jokatzeko orduan erakutsi duten jarrera zakarra eta arriskutsuagatik. Lagun arteko txapelketa heldu den gogorkerira heltzea penagarria eta era berean kezkarria izan daiteke. Eskerrak txapelketa irabaztearen ohorea baino ez dagoela jokuan, bestela batek daki zer gerta zitekeen!



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Welcome International

- B.B.B. eta U.B.I. E.E.B.B.etan
- Ingeles ikastaroak haur eta helduentzat Ingalterra eta E.E.B.B.etan.
- Au-Pair E.E.B.B.etan.

Santa Ana, 28-3.Esk. Elgoibar Tfnoa: 74 15 14 (Maite)

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Frantziskanner	13	10	2	1	61	31	22
Orlando Piratas	13	11	0	2	79	34	22
Argi Ibili	13	9	1	3	90	33	19
Sokoakoak	13	8	2	3	84	47	18
Arrasate Kirolak	13	8	2	3	43	40	18
Sortu informatika	13	7	3	3	64	52	17
Kamasutra	13	7	3	3	57	27	17
Totem	13	7	2	4	59	42	16
D.A Iriztu	13	7	1	5	68	43	15
Jotakabau	13	6	3	4	55	45	15
Kakajauri	13	5	2	6	41	41	12
Bukanak	13	5	2	6	39	44	12
Uglys Txinato	13	2	4	7	35	61	8
Gaztetzokoa	13	3	0	10	31	100	6
Gualtrapas	13	3	0	10	39	79	6
alealee	13	2	1	10	32	92	5
Toss Tehaman	13	2	1	10	20	90	5
Tronkoteak	13	0	1	12	2	18	1

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Fosforos	11	9	1	1	60	32	23
Txeyenex	11	9	1	1	50	20	23
Bar Okorotegi	11	7	2	2	38	17	19
AdelaidaHaizea	11	7	1	3	54	24	18
DKB	10	7	0	3	40	31	17
Hirei	11	7	0	4	43	26	16
AC Surkos	10	6	1	3	39	29	16
Lorategi	11	6	1	4	31	28	16
Ojo Avisore	11	5	3	3	45	35	15
Los Heredia	11	5	2	4	29	27	15
Altza Porru	11	4	1	6	30	38	14
6. Proyecto	11	3	2	6	24	36	9
Fraguel Gol	11	3	1	7	29	38	9
Berango Suka.	11	3	0	8	29	31	8
Kopyprest	11	2	0	9	25	69	5
Kirten Tropel	11	2	0	9	16	45	4
Los Dalton	11	1	0	10	27	71	4
Aizpun Bila	11	0	2	6	46	28	3

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 2 - Frantziskanner 2
Arrasate Ki.k 3 - Gualtrapas 2
Soru Info. 1 - Kamasutra 0
Bukanak 1 - Tronkoteak 0
Orlando Pir. 3 - Uglys Txinato 1
Jotakabau 7 - Alealee 4
Argi Ibili 18 - Gaztetzokoa 1
Toss Tehaman 0 - D.A Iriztu 13
Totem 5 - Sokoakoak 2

B Taldea

Los Heredia 3 - Lorategi 1
AC Surcos 4 - Kirten Tropel 3
Hirei 4 - DKB 3
Berango Suk. 3 - Fosforos 4
Txeyenex 6 - Los Dalton 3
Altza Porru 0 - 6. Proiektua 1
Ojo Avisore 1 - Aizpun Bila 0
Fraguel Gol 1 - Adelaida Haizea 9
Kopyprest 2 - Okorotegi Tab. 12

D Taldea

Exc Lete 3 - Ke Oxtias 2
Pub People 4 - Leya 1
Aurrera Bolie 6 - Kriskibalda 4
Zotz Motz 8 - Carto.Igamo 4
Pepelus 2 - Koka Juniors 5
Baneuko 0 - Perrahotsa 3
Resakas 1 - Petroleros 5
MSM Ing. In. 2 - Danok Lagun 2
Artzankos Udalaiz 2 - Cerv.Leintz 2
Cerveceria Leintz 3 - Koka Juniors 1

E Taldea

Const Fercon 2 - A ti que te imp. 7
No Comment 2 - Irati STS 8
Potrosorri 0 - Lautherbrunnen 3
Insert Coin 4 - Elisabeth 1
Betrayer 1 - Trikiti 2
HMKL 4 - Arrasate Zoo 4
Anbotoste 3 - Los Dimy 2
Nuevo Taberna 3 - Ganbelas 1
Borrock Roll 1 - Txarokis 0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
A ti que te importa	13	11	1	1	57	33	23
Lautherbrunnen	13	10	1	2	81	42	21
Irati STS	13	10	0	3	68	30	20
Nuevo Taberna	13	8	3	2	68	33	19
Anbotoste	13	9	1	3	48	26	19
Trikiti	13	8	2	3	51	24	18
Betrayer	13	8	1	4	38	40	17
Ganbelas	13	7	3	3	47	34	17
Insert Coin	13	8	0	5	60	46	16
Los Dimy	13	6	3	4	32	34	15
Borrock Roll	13	6	0	7	51	46	12
Arrasate Zoo	13	3	2	8	30	46	8
Potrosorri	13	2	2	9	30	45	6
No Comment	13	3	0	10	30	55	6
HMKL	13	2	2	9	34	76	6
Elisabeth	13	1	3	9	24	53	3
Txarokis	13	1	1	11	36	70	3
Const Fercon	13	1	1	11	32	104	3

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Pub People	13	11	0	2	87	33	22
Aurrera Bolie	13	10	2	1	58	31	22
Cerv Leintz	13	9	2	2	33	23	20
Artzankos Udal.13	7	3	3	43	30		17
Zotz Motz	13	8	1	4	51	39	17
Perrahotsa	13	8	0	5	41	35	16
MSM Ing. Int	13	7	2	4	45	25	16
Danok Lagun	13	6	3	4	46	39	15
Koka Juniors	13	7	0	6	50	44	14
Pepelus	13	5	1	7	47	52	11
Leya	13	4	3	6	34	39	11
Petroleros	13	4	3	6	30	45	11
Exc Lete	13	5	0	8	41	51	10
Ke Oxtias	13	4	0	9	46	52	8
Resakas	13	3	1	9	19	53	7
Cartonajes Igamo	13	3	1	9	47	63	7
Kriskibalda	13	3	0	10	38	63	6
Baneuko	13	2	0	11	33	92	4

Hurrengo partiduak

14. ihardunaldia

Larunbata 3 Zaldibar

8.50 Kakajauri - Jotakabau
10.00 Danok Lagun - Leya
11.00 Arrasate Kir. - Toss Tehaman
12.00 Lautherbrunnen - Trikiti
13.00 Kamasutra - Uglys Txinato
14.00 Potrosorri - Anbotoste
15.00 Berango Suk.k - Txeyenex
16.00 EXc Lete - Baneuko
17.00 Ganbelas - Irati STS
18.00 Adelaida - Kirten Tropel
19.00 No Comment - Nuevo tab

Iturripe A

11.00 Aurrera Bolie - Resakas
12.00 AC Surcos - Fraguel Gol
13.00 Pub People - MSM Ing Int
14.00 Insert coin - Betrayer
15.00 Bukanak - Orlando Piratas
16.00 A ti que te imp - Arrasate Zoo
17.00 Fosforos - Okorotegi Taberna
18.00 Ke Oxtias - Perrahotsa

Iturripe B

13.00 Los Dimy - Borrock Roll
14.00 Lorategi - 6º Proiektua
15.00 Frantziskanner - Alealee
16.00 DKB - Los Dalton
17.00 Gaztetzokoa - Totem
18.00 Hirei - Ojo Avisore

Igandea 4 Zaldibar

8.50 Cons Fercon - HMKL
10.00 D.A Iriztu - Gualtrapas
11.00 Zotz Motz - Pepelus
12.00 Sortu Informatika - Argi Ibili
13.00 Petroleros - Artz. Udalaiz

Protagonista

Dabid Zaitegi Irati STS

- Zer moduz joan zaizue neurketa?
- No Comment taldearen kontra neurtu ditugu indarrak eta 8- 2 irabazi. Ezin gara kexatu.

- Txapelketa zer moduz doa?
- Gure taldearentzat oso ondo. Goialdeko postuetan gaude kokatuta, 4. postuan hain zuzen ere. Gaurdaino 10 neurketa irabazi ditugu eta hiru galdu. Sartu ditugun golekin ere pozik gaude, 68 eta 30 jaso.

- Asteazken zehar entrenatzen duzue?
- Gogor entrenatu ez, baina ostegunetan kuadrilakoak partidu bat jokatzeko



elkartzen gara.

- 2. fasea sailkatzeko itxaropenik bai?
- Itxaropena, ilusioa eta aukera asko. Ondo gaude kokatuta eta dagoneko hanka bat gutxienez bigarren fasean dugula esan dezakegu.

- Talde faboritorik?

- Betikoak Fosforos, Adelaida. Bestalde, badago beste talde bat indartsu datorrena Sokoakoak.

- Zer da txapelketan gehien gustatzen zaizuna eta gutxien?
- Gehien asteburutan kuadrilakoak elkarrekin egoteko aukera dugula. Gutxien azken boladan txapelketan dagoen gogorkeria. Lagun arteko txapelketa bat izateko gogorkeri gehiegi dago.

- Antolatzaileek jartzen dituzten zigorrak ondo daude?
- Abisuak ematea ondo ikusten dut, txapelketatik kanpo uztea ez hain ondo. Kanpora bota beharrean puntuak kentzea hobea litzateke. Talde bat kanporatzea oso gogorra da.

Labur

■ **HIRU TALDE KANPORATUTA.** Asteburu korapilatsua bizi izan da Zaldibar txapelketan. Hiru talde txapelketatik kanpo geratu dira: Txerokis partidura ez zelako aurkeztu. Cerveceria Leintz eta Koka Junior taldeek izugarrizko tangana sortzeagatik partidu azkenean. Hori dela eta, astelehenean antolatzaileek izan zuten bileran talde biak kanporatzeko erabakia hartu zuten. Dagoeneko sei talde daude kanporatuta: Tronkoteak, Aizpun Bila, Altza Porru, Txerokis, Cerveceria Leintz eta Koka Juniors.

Protagonista

Gorka Okari No Comment

- Jokatutako partidua- rekin pozik?
- Ez, 8 eta 2 galdu dugu, ezin pozik egon.

- Zer gertatu zaizue horrela galtzeko?
- Lehen zatian ondo ibili gara baina bigarrenean golak lortu guran aurrera jo dugu eta Irati STSkoek ondo aprobeztatu dituzte atzean utzitako hutsuneak golak barra barra sartzeko.

- Taldean jokalaria asko zaudete, ezta?
- 10 gaude. Horrenbeste izateak alde onak eta txarrak ditu. Onak aldaketa asko egin daitezkeela, baina txarra jokalaria bakoitzak denbora gutxi jokatzeko aukera duela.



- Bigarren fasea urruti samar?
- Oso urruti, 14. tokian gaude kokatuta 6 punturekin, 10 neurketa galdu ditugu eta 3 irabazi. Egia esateko gure taldearentzat bigarren fasea pasatzea ezinezkoa da.

- Talde gogorregia tokatu zaizue?
- Iaz talde gogorragoa

izan genuen eta hobeto ibili ginen. Aurten taldeko bi kide kanpora joan dira ikastera eta horien baja asko igertzen ari gara. Pisu handiko jokalaria ziren.

- Talde faboritoak?
- Argi Ibili, Adelaida, Fosforos eta baita AC surcos ere.

- Txapelketan gehien gustatzen zaizuna eta gutxien?
- Gehien dagoen giroa, oso giro jatorra sortzen da. Gutxien arbitraiak. Epailak oso txarrak gara eta horregatik sortzen dira horrelako iskanbilak. Epailen arazoa konpontzeko bide bat hasieratik epaile onak jartzea litzateke, erdi profesionala, arauak dakiena eta epaitzea gustatzen zaiona.

■ **AZKEN SPRINT-a.** Lehen fasea bukatzeko lau neurketa baino ez dira falta. Otsailaren 24-25eko asteburuen multzo bakoitzeko zortzi talde sailkatuko dira. Bigarren faseko taldeak beti bezala zozketaz erabakiko dira. Taldeak osatzeko sailkatutako taldeek otsailaren 26an izango dute bilera Monterronen.

■ **BI TALDEK ATSEDE-NA.** 14. ihardunaldian Cartonajes Igamo eta Kriskibalda taldeek atsedena izango dute. Talde hauek Cerveceria Leintz eta Koka Juniors-en kontra jokatu behar zuten baina kanporatuak izan zirenez, ezin jokatu.

ARRASATEKO IKAT

Dohaineko hezkuntza, kalitate integratzailea eta euskara





PEDAGOGIA AURRERTU BAT

MATRIKULAEA;
otsailaren 1aurre

INFORMAZIEHIA
Tfnoak:


ERGUIN: 7 74
MUSAKO 79 04
S. ANDRE 79 00
INSTITUTU 79 4

 Haur Hezkuntza (2-6 urte)

 Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

Ereduak: **"D"** eta **Mungiltze**

S. Andres H. I. – Erguin H. I. – Musakola H. I.

 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Ereduak: **"D"** eta **"B"**

Institutuan



ATETXE PUBLIKOAK

atatezkoa,
skiduna

2 urtetik
19urtera arte




GOI METODO
ERTUENEKIN
ATGINEZ

KULAEA;
en laurrera

MAZIEHIAGORAKO:

GUIN: 7 74
BAKO 79 04 49
NDR 79 00 44
TITUT 79 44 47



-  LOGSE Batxilergoak
 -  L. E. E. (R. E. M.) Lehen Zikloa
 -  B. B. B. (B. U. P.) Lehen eta Bigarren Mailan
- Kredituak: "D" eta "A"

Institutuan



Jose Maria Talledo eta Mª Jesus Zubillagak urrezko eztaiak bete zituzten abenduaren 27an. Ezkonduta daramaten 50 urteak ospatzeko Leintze elkartearen senitartekoeekin bazkari ederra egin zuten. Mª Jesus arrasatearra da eta Jose Maria Santandergoa. Zorionak bikote!



Marilu Lazkano eta Humpherey abenduaren 18an ezkondu ziren Dorletako Santutegian. Marilu eskoriatzarra da eta senarra Curaçaoko, Antilla

holandarreko uharte nagusikoa. Bidaia batean elkar ezagutu eta adiskidetasuna ezkontzan amaitu da. Ezkon bidaian Curaçaora joan dira. Zorionak!



Loramendi kirol dendak urterro moduan bi sari berezi banatu ditu Behobia Donostia lasterketan sailkatu ziren lehen arrasatearren artean. Emakumeetan **Antonina**

Pachok jaso du Loramendikoen saria eta gizonetzoketan **Enrike Kabiketak**. Bi korrikalari hauek dagoeneko ohituta daude horrelako sariak jasotzen!



Zorionak eta urte berri on! Itxura denez Garagartza aldean oraindik Gabon giroan murgilduta daude. Kontua da urteari hasiera emateko dotere apaindu zutela

auzo etxea, orain berriz, ahaztu egin zaie kentzea. Beste hilabete batzuk horrela edukiz gero, lan gutxiago izango dute 96eko Gabonetan. Pentsatzekoa da!

IZEN PROPIOAK



Ez dira donostiarrak eta ez daude Donostian. Torreviejan negua pasatzen dauden hainbat euskaldun dira argazkikoak eta San Sebastian

eguna primeran pasa zuten. Sukaldari jantzi, tanborra gerrian lotu eta makilekin tanborradako doinuak gozatu zituzten. Tartean bost arra-

satear zeuden. Denen izenak ez dakigun arren, horietariko bat **Pedro Zumelaga** da, berak bidali digu argazkia eta.



Otsaila izan arren dagoeneko herriko zuhaitz eta zelaietan **udaberriko aztarnak** somatzen dira. Urteko lehen San Jose lorak hasi dira zelaiak apaintzen eta zuhaitzetan ere lorak agertu dira. Oraindik neguan bete betean sartu ez garela kontuan hartuta ez ahal da goizegi izango! Ea bada zenbat irauten duten!



Aukeak antolatuta Frontenis txapelketa egon da jokuan. Joan zen astean finala jokatu zen. Aurrez aurre Jose Caballero - Diego Galan eta Leo Sanchez - Felix Elorza izan ziren. Neurketak bi ordu luze iraun zuten eta 35-29 Jose Caballero- Diego Galan bikotea nagusitu zen.

● San Felipe Apostol kofradiak batzar nagusia izan zuen domekan. Bertan junta berriko kideak aukeratu ziren. **Jose Ramon Urkia** lehendakariorde berria da. Idazkaria **Jose Ignacio Elorza** eta bokalak: **Jose Angel Agirre, Iñaki Lizarralde** eta **Iñaki Umerz.**

● **Joxepa Arregi** eta **Jose Manuel Pagoaga Peixoto** arrasatearrak Herri batasuna alderdiko kongresurako lizerrendetan joango dira Martxoan egingo diren Hauteskundeetan. **Peixoto** Gipuzkoako 4. hautagaia da eta **Joxepa** 5. a.

● **Santiago Castillo** Fagor Arrasateko gerente berria da. Santiago Gasteizen jaio zen duela 50 urte. Perito Industrial da eta Embega Kooperatibaren gerentea azken bederatzi urteotan. Jose Ramon Gorosabel ordezkatu du Castillok.

● **Mari Fran Arana** 40 urteko eibartarra Fagorreko komunikazio buru izendatu dute. Mari bederatzi urtean Dokumentazio Zentruan ibili da lanean eta Jose Ignacio Gaytan de Ayala ordezkatu ko du.



Kale kalean batatz beste 200.000 pta. inguru balio du metro karratuak.

Etxebizitza erosten

Beñardo Kortabarria

**Etxebizitza erostea-
rekin egiten du amets
askok. Ametsa errealita-
te bihurtzea uste baino
neketsuagoa suertatu ohi
da. Hasi papeleo kon-
tuekin, segi eraikuntza-
koekin... banketxeeta-
koekin bukatu arte. Era-
bakia erraz asko har dai-
teke boteprontoan, baina
tamaina horretako inbert-
sioa egin aurretik kome-
nigarria izaten da egin
beharreko bide osoaren
ideia garbi bat edukitzea.**

Etxebizitza bat ero-
si edo beste bat,
gustuak alde bate-
ra, diru kontua iza-
ten da gehienbat.
Hortik abiatu behar du bada,
etxebizitza bat eskuratu nahi
duen edonork. Erosketa zen-
batekoa izango den, norberak
zenbat daukan, zenbateko kre-
ditoa eskatu beharra egongo
den eta hileroko kuota ordain-
tzeko aukerarik dagoen azter-
tu lehenik. Bigarren eskuko
etxebizitza zein etxebizitza
berria erosteko erabakia har-
tu aurretik, derrigorrez atera
beharreko kontuak dira horiek.

Diru kontuak balekoak
badira, aurrera!, baina aurre-
rapausuak poliki poliki emanez,
gero atera ezin daitekeen
zuloetan hanka sartu barik.

Etxebizitza mota asko
dago, baina oinarrian, eroske-
ta-salmenta ikuspegitik, berrietan
eta bigarren eskukoetan
egin daiteke banaketa.

BIGARREN ESKUKOekin BEGIAK ARGI


Etxebizitza berriena baino
zabalduagoa da bigarren esku-
koen merkaturia. Komenigarria
izaten da horregatik, aukerak
eta lehtasunak kontuan har-

tuta, ahalik eta etxebizitza
gehien ikustea. Jakina, bisita
horietan aditu baten laguntza
izanez gero, hobeto, akatsen
bat baleuka errazago ikusiko
lukeelako. "Ez hemen -dio
Jabier Pagalday agente inmo-
biliarioak- baina gertatu izan
da bigarren eskuko etxebizi-
tza erosi, itxuraz egoera oso
onean eta moketapeko egur
dena ustelduta egotea; edo ero-
si eta denbora gutxira tuberia
guztiak aldatu behar izatea.
Horregatik hobe izaten da gaia
profesionalen esku uztea".

Behin etxebizitza bat auke-
ratuta erosketa prozesua gau-

zatzea izaten da ondorengo pausua, saltzailareakin prezioa adostu eta salmenta legez-tatzea. Eraikuntzetan sor dai-tezkeen arazoak handiak izan-ik, handiagoak eta korapi-latsuagoak izan ohi dira gaiz-ki egindako tramiteengandik sortutakoak. Zentzu horretan, aholku zuzenak ematen dituz-te gai honen inguruan mugit-zen diren gehienek: 1) Jabe-tza Erregistrora joan eta ber-tan egiaztatu saltzailea dela etxebizitzaren benetako jabea, eta etxebizitza ez dagoela hipotekatuta edo enbargatuta. 2) Eskrituren fotokopiak eska-tu eta egiaztatu benetakoak direla eta egia diotela. "Pape-rekin denetarik egon da: eskri-turetara agertzen zena eta sal-menta egin nahi duena per-sona bera ez izatea, bigarren aldiz saltzea, saltzaile titular guztien sinadura ez izatea... ezer sinatu aurretik eta diru sei-nalea eman aurretik dena begi-ratu behar da".

Ondoren salmenta-eros-keta kontratoaren sinadura dator, erosten dena norbera-rena dela egiaztatuko duen dokumentuarena. Ez hori bakarrik, ordainketa modua, zenbat diru aurreratu, atzera egiten bada zer gertatuko den... eta antzerakoak era-



Gaur egun herrian 134 etxebizitza eraikitzen ari dira.

bakitzen dira kontratu horre-kin. Zehaztasun gehiegi gaian jantzita ez daudenentzat, horre-gatik gomendatzen da profes-ionalengana jotzea. "Ez dago prozesu osoa gure esku utzi beharrik. Nahiaz gero, etxebi-zitza aurkitzetik hasi eta gai-nontzeko dena egin dezakegu,

baina bakarrik adituen esku kontratuen gaia utzi nahi bada ez da arazorik egoten, zerbi-tzu hori ere eskaintzen da".

DIRU BELTZ UGARI BERRIETAN

Bigarren eskuko etxebi-zitzak erosterakoan ezezik,

berria erosterakoan pausu jakin batzuk eman behar dira Behin obra baten berri edukita, diru kontuak egin eta etxebizitza eraikin beharreko tokia gus-tokoa bada, lehen pausua salt-zailea fidatzekoa den edo ez jakitea komeni da. Banketxe-tara edo kutxetara joatea nahi-koa horretarako, han izaten dituzte eta fidatzekoak ez dire-nen zerrendak.

Aurreko tramitea beteta planoak eta materialak begi-ratu behar dira, ondo begiratu gainera, gero aldaketarik egon ez dadin. Adostasunera iritsi-ta, bigarren eskukoetan beza-la, kontratoaren sinaketa eto-rtzen da ondoren. Sinatzera-koan obra bukatzeko epea jar-tzea komenigarria izaten da, plano eta materialen deskri-bapen zehatza eta hasierako proiektuan aldaketarik bada-go horren berri emateko obli-gazioa. Erosleen betebeharrak beti agertzen dira kontratoen bukaeran, eta ezbateaz gero ezartzen diren zigorrak. Eros-learenak bezala saltzailearenak jartzea exigitu behar da.

Kontratuan finkatzen da gehiena, baina bada, normala izan arren, kontratuetan seku-la agertzen ez den kontu bat, diru beltza. Jende denak ordaintzen du diru beltza erai-kuntza berrien kasuan. Honek badu abantailarik, ez da eta gero eskriturak ordaintzerakoan kontuan hartzen, baina baita eragozpenak ere. "Ahalik eta diru beltz gutxien ordaindu behar da, hiru arrazoiengatik batez ere: ez duelako desgra-batzen alde batetik, hazienda enteratuz gero isuna jar deza-keelako bestetik, eta arazoren bat badago ezin delako erre-klamatu azkenik".

Bigarren eskuko etxebi-zitzen kasuan edo berrietako-an, aipatutako puntura iritsi ondoren, eskriturak egitea bes-terik ez litzateke geratuko. Hau da, notariara joan, paper bat sinatu eta larrutik ordaindu. Beno, nahiko da, etxebizitza baten jabe.

Arrasateri buruzko hainbat datu

- Gaur egun 7.804 etxebizitza daude Arrasaten, horietatik 795 hutsik daude.
- Urbanizazio faltan Markoalden 18 etxebizitza eraiki dira. Une honetan Uharka-peko etxebizitzaren obra (110) eta Gurea Zinemakoa (24), martxan dauden bakarrak. Hemendik gutxira, oraindik gestio lanetan daude eta, Kontzezinon (80), Legar-Gainen (80) eta Garagartzan (30) hasiko dira etxebizitzak eraikitzen.
- Kooperatiba gisara egin izan dira etxebizitzak Arrasaten, orain lehen baino gu-txiago hala ere. Normalean askoz merkeago ateratzen da, %20-25a merkeago alegia.
- Inguruko herrietan bezala, garesti daude hemen etxebizitzak, batz besteretro karratuko, kale kalean, 200.000 pta. inguru aipatzen dute. Ietik 10erako eskala egingo balitz, Donostia 10a izanda, Arrasate 7aren inguruan ibiliko litzateke prezioei dago-kienez.
- Aurreko datua lokal komertzialetara eramanez gero, justu kontrakoa ikusiko li-tzateke, lokal komertzialak oso merke daude eta.
- Zergatik, batzuk hain garesti eta beste batzuk dezente merkeago? Oso eskari han-dia dago etxebizitzari dagokienez eta eskaintza berriz txikia. Bigarren eskuko etxebi-zitza ugari dago, baina berri gutxi eta jendeak berriak nahi eta eskatzen ditu.



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

ENTZUMENA, SUDURRA, EZTARRIA

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea	☎79 20 18
--	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea	☎79 20 18
--	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk.....	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAJARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
--	-----------

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
---	-----------

● *Nestor Garai*

Informatikaria idazle lanetan

“C Programazio Lengoaia” duela gutxi kalera atera den liburu bat da. Donostiako Informatika fakultateko irakaslea den Nestor Garai arrasatarra hori egiten ari da beste lagun batekin eta azken hilabeteetan txukunketa lanetan ibili ondoren, Elhuyarrek argitaratu du 300 orrialdeko liburua. Liburu hau “C” lengoaiari buruz idazten den euskarazko lehena da eta informatika euskaraz ikasten ari direnentzat lagungarri izatea espero dute.

— Zeri buruzko liburua da idatzi berri duzuen hau?

— Informatikako programetan idatzi ahal izateko lengoaia desberdinak daude, eta horietariko bat “C” lengoaia da. Liburua lengoaia horren inguruko da. 70. hamarkadan sortu zen eta geroztik oso erabilia da sistema eragileen errutinak idazteko. Hedadura handia izan du lengoaia honek eta erabiltzen jakiteko idatzi dugu liburu hau.


— Beraz, ikas-liburu bat da?

— Bai. Unibertsitateko

plangintza aldatu egin da eta liburu honek jorratzen duen gaia 4. mailan ematen zen lehen. Plan berriarekin berriz, 2. mailan ematen da eta ikasle horiendako euskarazko libururik ez zegoenez, guk geuk idaztea erabaki genuen. Dena den, fakultateko ikasleentzat ezezik, edozein informatikazaleri ere zuzendutako liburua da hau. Enpresa askotan lengoaia hau erabiltzen dute eta eurentzat ere erabilgarria izan daiteke, baita inginerutza ikasleentzat ere. Dena den, manual bat ez dela esan behar dut ere, hori baino gehiago da.

— Zenbat denbora pasa duzue liburua idazten?

— 1993an bururatu zitzaigun liburua idazteko ideia. Gainera, Iñakik, nirekin batera liburua idatzi duenak, gai honi buruzko zenbait artikulua idazten zuen Elhuyar aldizkarian eta horiek osatuz liburu bat atera genezakeela ikusi genuen. Hasieran indartsu hasi ginen baina Iñaki tesia amaitzen ari zenez eta ni proiektuan oso murgilduta nengoenez, asteburuko lana bihurtu zen liburuarena. Kontuak kontu, bi urte behar izan ditugu liburua amaitzeko baina azkenean, denbora horrek merezi egin duela uste dugu,



liburu nahiko mardula atera zaigu eta.

— “C” lengoaiari buruz euskaraz argitaratzen den lehen liburua da?

— Bai. Gaztelera eta ingelesez asko idatzi dira baina euskaraz idatzitako lehena da hau. Iñakik eta biok euskaraz ematen ditugu fakultateko klaseak eta testu liburu oso gutxi dagoela konturatzen gara, beraz, hasieratik izan genuen argi liburua euskaraz idatziko genuela. Ni informatika fakultateko ikasle izan nintzanean irakasgai guztiak erderaz neuzkan eta UBI euskaraz ikasi nuen, oso aldaketa gogorra iruditu zitzaidan bapatean eskola guztiak erderaz jasotzea. Orain euskaraz izan daitezen lortu da baina oraindik oso testu-liburu gutxi dago.

— Zein informazio iturri kontsultatu duzue liburua osatzeko?

— Alde batetik Elhuyarreko artikulua sorta eta bestalde, “C” lengoaiari buruzko hainbat liburu. Jakina, akatsik ez egiteko UZEIKo Informatika Hiztegia ere erabili genuen.

— Euskaraz idatzitako beste testu libururik ateratzeko asmorik baduzue?

— Bai, izan ere liburu honetako azken kapituloan beste lengoaia bati buruzko azalpen gutxi batzuk ematen ditugu, “C++” lengoaiari buruzkoak hain zuzen ere. Gure asmoa lengoaia horri buruzko beste liburu bat idaztea da, baina momentuz asmo bat besterik ez da, nik tesia egiten hasi nahi dudalako eta Iñaki oso lanpetuta dagoelako.

● **“Hasieratik izan genuen argi liburua euskaraz idatziko genuela, euskaraz idatzitako oso testu liburu gutxi dago informatikan eta”**

ERIK MARTIN

“AUKEA saria oso berezia izan da”


Erik Martinek bost urterekin jantzi zuen lehen aldiz karateko kimonoa, orain 17 ditu eta herriko kirolari onenaren saria jaso du, Aukea saria hain zuzen ere. Sari hori jasotzeko adina meritu egin du azken urteotan. Gazte honentzat karatea hobbya izatetik gauza sakonagoa izatera heldu da.

— Zer sentitu duzu Aukea saria jasotzean?

— Poz handia eta aurrera jarraitzeko indar berria. Sekula ez dut horrelako saririk jaso eta jakitean ezin nuen sinestu.

— Nolako izan da 95. urtea zuretzat?

— Nahiko ona, ezin naiz kexatu. Urte hasieran gerriko beltza lortzeko azterketa egin nuen eta gaingitu. Gerriko beltza 10 Dam-etan banatzen da eta nik lehena dut. Bigarrena lortzeko 2 urte itxaron behar da, beraz, gauzak ondo badoazkit 97an lor dezaket bigarrena. Gainera Eus-



Erik Martin, karateko etorkizuna.

kadiko txapelketan lehen postua lortu nuen kumitean.

— Karatean zer da zailena?

— Zailena ez dakit, baina astunena entrenamenduak. Bestalde karatea kumite eta katetan banatzen da. Katak

nahiko zailak dira teknika konbinatua lantzen da eta entrenamendu asko eskatzen du.

— Karatea egiteko ze ezauzarri behar da?

— Ez dakit, bost urtere-

kin hasi nintzen eta beti kirol bera egin dut. Karateka ona izateko erresistentzia, azkartasuna, indarra.. denetarik apur bat, oso kirol osatua da eta.

— Noraino heltzea gustatuko litzaizuke?

— Ahal den eta urrutien. Ez dut helburu zehatzik ezarri baina datorren dena hartzeko gertu nago. Nire ametsa munduko txapelduna izatea litzateke, hori jakina oso zaila da.

— Zer da zuretzat karatea?

— Hasieran hobbya zen, orain zerbait sakonagoa. Ez dakit azaltzen baina nire bizitzako zati garrantzitsua bihurtu da karatea.

— Zer moduz taldekide eta entrenatzailearekin?

— Iñaki Muñoz da entrenatzailea eta benetan gustorra nago. Saioa Karate taldeko beste kideekin ere primeran.

San Andres pilota txapelketa asteburuan

Arrasateko pilotariak San Andres txapelketako neurketak jokatu dituzte zapatuan Iturripen arrasaldeko 4etik aurrera. Benjamin, alebin eta infantilen partidua egongo dira ikusgai.

Benjaminetan bost pilota partidu daude jokuan:

- Agirre - Losada
- Etxebe - Lakunza
- Perez II - Osinaga II
- Garai - Mendieta II
- Arkautz II - Jauregi I

Alebinek fronton txikian jokatu dute eta neurketak hauek izango dira:

- Ugartetxe - Zuazua
- Mendieta - Bergaretxe
- Arozqueta - Urkia
- Perez - Masip
- Rodriguez II - Blanco II
- Ugarte - Arriaren
- Anzizar - Salegi


Infantilen norgehiagokan frontoi handian izango dira:

- Uribarren - Blanco I
- Dominguez II - Jauregi I
- Gimenez - Ormaetxea
- Zubillaga - Etxeandia

Juan Carlos Martinek errekor berria ezarri 60 metro hesitan

Arrasate atletiko taldeak taldekako Euskadiko txapelketan hartu zuen parte zapatuan Anoetan. Arrasateko taldea 6. tokian sailkatu zen. Herrian pistan entrenatzeko tokirik ez dagoela kontuan izanda, emaitza ona lortu dutela esan daiteke. Txapelketan 6 ordezkari izan zituen Arrasatek eta guztien artean Juan Carlos Martin atletak 60 metro hesitan egindako lana azpimarratu behar. Juan Carlosek 9 segundu eta 32 ehunetako behar izan zuen froga gainditzeko. Denbora horrekin bere marka hobetu du eta errekor berria ezarri Arrasaten

Bestalde domekan Lasarteko Nazioarteko krosa egin



Juan Carlos Martin atletak lan bikaina egin zuen Anoetan.

zen eta bertan Jabier Mentxaka eta Enrike Kabiketa izan ziren. Jabier Mentxakak denbora bikaina lortu zuen. 10 kilometroak 34 minutu eta

26 segundutan bete zituen, 41. tokian sailkatu zen. Kabiketa ere bikain ibili zen, 35 minutu eta 30 segunduko denbora eginez 58. tokia lortuz.


● **MONDRA ETA GERNIKA LEHIAN**
3. mailako Mondrak Gernikaren kontra neur-tuko ditu indarrak domekan arratsaldeko 4etan. Gernika sailkapeneko 4. tokian dago 41 puntu-rekin. Teorian Gernikak irabazi beharko luke baina futbolearen praktikak garrantzi gehiago duenez jokatu arte ezin ezar esan.

● **EMAKUMEEN ARERIOA OSTADAR**
Mondrako emakumeek Ostadar taldearen kontra jokatu dute zapatuan arratsaldeko 3.30etan Lasarteko Michelin futbol zelaian.

Carlus Croves Urbina Maltzaga eta Basconiako jokalaria

Carlus Croves Urbina Maltzagako pibotak Arrasaten eta Taugres Basconia taldeetan jokatuko du hemendik aurrera. Gasteizko taldeko Kenny Green jokariari lesio larria izan du bizkar hezurrean eta baja izango da denboraldi osoan. Hori dela eta, Basconiako ordezkariak Urbina Maltzagakoengana zuzendu dira Croves jokalaria eskatzeko. Astelehenean izan zuten bileran Arrasateko ordezkariak garbi utzi zuten Carlus Crovesek Basconiarekin jokatuko duela baina era berean Urbina Maltzagan ere. Talde biek egun eta ordu berean neurketarik izanez gero, Arrasaten jokatuko luke amerikarrak. Gainera Urbina Maltzagak diru kopuru bat jasoko du Gasteizko taldeak.

Txus Perez Urbina Mal-



Carlus Grovesek Arrasatera etorri zenetik esamen asko eman du

tzagako gerenteak esan duenez, astelehenean sinatutako akordioa taldearentzat ona da

ekonomikoki eta kirol mailan ere ez du aldaketa nabar-menik ekarriko.

Bestalde Urbina Maltzagak CAB Coruña taldea izango du aurrean zapatuan A Coruñaeko Riazor kiroldegian. Partidua arratsaldeko 6etan jokatuko da eta Samaniegok jokalaria guztiak gertu izango ditu.

CAB Coruña sailkapeneko azkenurreko tokian dago 27 punturekin. Jokatu-tako 21 partiduetatik 6 irabazi eta 15 galdu ditu. Datu hauek kontuan izanda, irabazteko moduko neurketa izan daiteke Arrasateko jokariarentzat.

Lehen bueltan Urbina Maltzagak samur irabazi zion 91 eta 75 A coruñaeko taldeari Iturripen. Orduan Abar-ka izan zen saskira begira jokalaria trebeena 20 puntu lortuz. Etxeko taldean Gomezen lana azpimarratu behar, 31 puntu lortu zituen.

Luis Mendarozketa

“Argazkia topatu egin behar da”

Aspaldi ateratako argazki batzuri esker, Euskadiko Kutxak antolatutako argazki lehiaketa irabazi du Luis Mendarozketa. Herrian bizi da Luis, baina argazkiak ateratzeko gurago du herrigunetik kanpo egitea, basora edo mendira joatea. Lehiaketara aurkeztu zituen argazkiak ere mendi inguruan ateratakoak dira.

– Lehiaketetara aurkezteko ohitura duzu?

– Oso lehiaketa gutxitan parte hartu izan dut baina Euskadiko Kutxako lehiaketaren oinarriak eskatu, eta aurkeztea erabaki nuen. Lehiaketa 55 urtetik gorakoendako zen, eta nik argazki historikoen sailean hiru argazki aurkeztu nituen. Argazki bat Apotzan ateratakoa da, bestea nire andrearen amari egindakoa eta azkena, Eskola Politeknikoari atera niona.

– Pozik lehiaketa irabazi duzula eta?

– Sorpresa izan da niretako baina beti egiten du ilusioa. Materiale fotografikoa, 30.000 pta. eta bidaia bat eman didate. Orain emazteak erabakiko du bidaian nora joango garen.

– Zer dela eta gustatzen zaizu argazkigintza?

– Nire aitak argazkiak ateratzeko makina handi horietako bat zuen, eta niri ere irakatsi zizkidan argazkigintzaren sekretuak. Soldadutzatik bueltatu nintzanean argazki makina bat ekarri zidaten Kanariasetik, Olympus bat, eta orduan serioago heldu



nion argazkigintzari. Liburu batzuk ere erosi nituen eta handik ikasi. Hasieran familiako gorabeheri ateratzen nizkien argazkiak, baina orain paisaiei ere ateratzen dizkiet.

– Zein paraje gustatzen zaizu argazkiak ateratzeko?

– Aramaio inguruan argazki politak egin daitezke eta baita Garagaratza aldean ere. Buelta bat ematera joaten naitzanean, apuntatu egiten dut ea zein tokitan egin daitezkeen argazkiak. Ondoren, eguraldiak laguntzen duenean, kamara hartu eta argazkiak ateratzen ditut. Atzean zerbait

duten argazkiak gustatzen zaizkit, baina lehen planoan zerbait adierazgarria jartzen ahalegintzen naiz.

– Zuri ere zuri-beltze-koak gustatzen zaizkizu?

– Bai. Zuri-beltzeko argazkiek kontraste hobea dute. Koloretakoak alegreagoak dira, baina zuri-beltzean ateratakoak hobeak izaten dira.

– Zer behar da argazkion bat ateratzeko?

– Argazkia topatu egin behar da, ez zaizu etorriko. Horrez gain, eguraldiak ere lagundu egin behar du eta itxaroten jakin behar da.

– Zuk zeuk errebelatzen dituzu?

– Lehen bai baina orain dendara bidaltzen ditut. Badaukat etxean errebelatzeko materialea baina ez dut gela egokirik. Lehen sukaldetan errebelatzen nituen argazkiak.

– Argazki asko izango dituzu.

– Argazkigintza ez da merkea eta lehen ez genituen gaur beste argazki ateratzen. Ez dakit zenbat ditudan, mila inguru behar bada.

– Zer egiten duzu argazkiekin?

– Artxibatu egiten ditut eta margotzeko ere erabiltzen ditut. Koadroak margotzeko afizioa ere badut, eta askotan argazkiak kopiatzen ditut. Argazkiekin eta koadroekin beteta dut etxea.

– Zertan pasatzen duzu denbora gehien?

– Gehien margotzen eta eskulanak egiten. Argazkigintzak denbora gutxiago kentzen dit. Beste bi afizioek denbora gehiago eskatzen dute.

– Non ateratu dituzu azken argazkiak?

– Joan den astean Murugain ingurura joan nintzen, eta handik hamar bat argazki atera nizkion herriari. Astebukaeran Udalan atera nituen beste batzuk.

– Beste nonbait ateratzeko asmorik?

– Santa Barbaran ateratzeko itxaroten nago. Putzu inguruan magnolia bat dago eta lorak irteten zaizkionean argazkiak aterako ditut.

“Nire aitak irakatsi zizkidan argazkigintzaren sekretuak. Soldadutza egin eta gero lehen argazki makina erosi nuen”

Santa Ageda bezpera igandean

Santa Ageda mutilak herriko auzoetan baserriz baserri ibiliko dira kantuan eta dirueskean otsailaren 4ean, 40 kantari inguru ohiko koplak abesten.

Palermoko Ageda santua

Santa Ageda eguna Euskal Herrian oso sustraitua egon arren italiarra da Ageda, 230. urtean jaio eta Palermon bizi zen emakume eder eta gazte bat. Siziliar bat beragaz maitemindu zen, baina Agedak, bere fede kristaua eta kastitatea gorde nahiean, ez zuen siziliarrekin ezkondu nahi izan eta gizonak Ageda erahil zuen bularrak moztuz, 251. urtean Catanian. Gertaera triste honek eliza kristauaren martir bihurtu zuen Ageda eta kristau erromesek Santiagora egiten zuten biderean ondorioz heldu zen Ageda gaixoaren istorioa Euskal Herrira.

Santa Ageda kantua eta kantariak

Santa Ageda bezperan kanta asko entzuten da Arrasaten baina bi dira Santa Agedarekin zerikusia dutenak: "One-



Aspaldiko ohiturari jarraituz, Santa Ageda kantariak otsailaren 4ean ibiliko dira baserriz baserri.

tzi" eta "Nire Kristaua" kantak. Bigarrenari moldaketa batzuk egin zizkion Juanito Arzamendik 1950. urte aldera, kanta 5 ahotsetan abestu ahal izateko. "El Otavo" izeneko gazte koadrila bat zegoen Arrasaten garai hartan, kantari trebeen koadrila. Ordura arte Arrasateko gazte koadrila bakoitza bere aldetik kantuan ateratzen zenez, guztiak bildu eta elkarrekin abestera ateratzea erabaki zuten. Hilabete lehenago egunero egunero entsaiatzen zituzten kantuak

eta Santa Ageda bezperan inguruko baserrietara ateratzen ziren. "Baserrian denboran gertu hildakoren bat balitz, Gure Aita errezatzen genuen; bestela kantatu" dio Juanitok.

Santa Ageda kantarien taldean duela 3 urtetik emakumeak daude. Otsailaren 4ean bi taldetan banatzen dira kantariak, bakoitzarekin poltseroak eta txistulariak. Goizez Bedoñako eta Musakolako baserrietan ibiltzen dira kantuan eta Julio Iriondok, kantuan ateratzen den arrasatear

batek azaltzen duenez, ordu-bietan Leintzen bildu eta baserrietan emandako janariekin bazkaria egiten dute: Tortila, lukainka eta babak. Hiru t'erdia aldera elkartetik atera eta baserriz baserriko ibilbidetara ekiten diote berriz ere. Santa Agedako bi ospitaleetara ere joaten dira, baita eskolara jaieguna ez denean. 6.30etan Udalpen biltzen dira guztiak txikiteoari ekiteko. Azkenik Udalpen afaria egiten dute sopa eta makailauarekin.

Hitzaldia


Gaia: **TXETXENIA**

Kaukasoari begidaratxo bat Txetxeniako gatazkaren gakoa ulertzeko.

Hizlariak

Gabirel Ezkurdia
Andoni Gorostiaga

"Errusiaren hatzaparrak ulertzeko" liburuaren egileak





Monterron Kultur Etxean
Otsailaren 6an. asteartea
Arratsaldeko 7etan





Argazkiaren ordean, postala gaurkoan. Mende hasiera zen, Domingo Agirre apaiz, idazle eta euskaltzain ondarrutarra Zumaian zegoen orduan. Hain ezagunak diren *Añamendiko Lorea* eta *Kresala* bezalako liburuen egileak eta Juan Carlos Guerra historiagile eta legegizon arrasatearrak, bat egin zuten garaiko hainbat euskal aldizkaritan, *Euskal Erria* eta RIEV-en esaterako.

Euskalzale biak lagun eginda, badirudi idatzizko harreman handi samarra zutela. 1908ko urtarrilaren 3an Domingo Agirrek bidali zion postal hau Juan Carlos Guerrari. Postalaren aurrealdean, Agirre bera ageri da liburu bat eskuetan duela eta ondo argi lagunari idazten diona. Atzealdeari begiratu gero, postala bera Frantziako Lyon-en eginda dagoela ikusten da, Bilbon bota zuela eta 10 zentimo balio zuela handik Arrasatera postala bidaltzeko. Aipatzeko moduko beste datu bat, orduko Arrasateko txikitasunaren erakusle edo Juan Carlos Guerra oso ezaguna zenaren seinale, helbidea: D. Juan Carlos Guerra, Mondragón.



ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.



- Bizitza
- Etxebizitza
- Autoa
- Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

**Zatoz,
Markuleten
gaude!**

Markulete Industrialdea
21, 22 pabilioiak
ARRASATE
Tfnoa: 79 21 26




**Gu bisitatzeak
lan asko
kenduko dizu!**



Logelarako altzariak, lanparak, edredoia...



**Bainurako guztia:
altzariak,
keramika,
griferia,
manparak...**




Sukalderako altzariak, elektragailuak



Egongelarako altzariak, su-bajuak...

ETXEA JAZTEKO BEHAR DUZUN DENA.



ANEREA
GALERIA DEL HOGAR


**Profesional
onenak
bat eginda!**

• ESAERA •

“Atsegin ditut hiri ezezagunak.
Inguratzen gaituen jende dena
abegikorra dela pentsatzeko tokia
eta unea izaten da. Ametsaren
ordua, jardin publiko batean ordu
erdiz zoriontsu izatekoa”

L. F. CELINE

• JEROGLIFIKOA •



Nor da neska hori?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8			9			
10					11	
12			13	14		
15			16			
17			18		19	
20						21

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Gaua egin aurreko aldia. 9. Buztinez objektuak egiteko artea. 10. Animaliak harrapatzearen ekintza. 11. Atzizkia. 12. Itotzeko eran. 15. Bi pare. 16. (Ald.) Antza, itxura. 17. Kanpo. 18. Berunezko kanalak egiteko moldea. 19. Numeroari dagokiona.

Bertikalak 1. Arrasateko teknologi ikerregia. 2. Lehiatzahalegindu. 3. Hiri. 4. Nazionalsozialista. 5. Zaltetasunez aritzen dena. 6. Bizkaiko ibilgailuetan. 7. Nor pluralean. 8. Pintore eta eskultore italiarra. 13. (Ald.) Artaburuak ematen dituen. 14. Alemaniako hiria. 18. Alfabetoko 2. letren izena.

• HOROSKOPOA •

Aries Gazte sentitzen zarela esaten duzu, baina...

Taurus Gezurrak esateko afizio handia duzu. Kontuz, ez gara inozoak.

Gemini Egiten duzuna egiten duzula, beti asmatzen duzu.

Cancer Ez zaitetz fida zeure buruaz. Batzutan engainatu egiten du.

Leo Urik gabe itotzen zara. Arazoei aurre egiten ikasi.

Virgo Ez zaitetz ahaztu zeure gazte denboraz, zoragarria izan zen eta.

Libra Ahal den artean, ez da itxaropena galdu behar.

Scorpio Edozein emakumerengatik frakak galduko zenituzke.

Sagittarius Hilabete honetan asko gastatuko duzu. Kontuz!

Capricorn Beti irabazten aterako zarela uste duzu. Galtzen ikasi.

Aquarius Astelehenetan lurjota egoten zara. Zer dela eta?

Piscis Zure asmoak onak dira baina berandutxo etortzen zaizkizu.

Zalantzarik baldin baduzu, deitu! Dohainekoa da.

Hezkuntz sistema berria, LOGSE, zure seme-alaben etorkizuna...



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA
INFORMAZIO SAILA
900 - 10 80 80

Otalora Lizentiatua, 8 Arrasate

• TELEBISTAREN TXOKOA •

Txatxilipurdi programa

Txatxilipurdik antolatutako Telebista tailerrean parte hartu zuten gaztetxoek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten. Hainbat pertsonaia ospetsuri telefonoz deitu eta Arrasate Telebistan geratu ziren eurekin: Bittor Aiape, Gozategi Anaiak taldeko soinu-jolea eta Euskadiko Dantza Txapelketako irabazlea Txatxilipurdiko gazteekin egon ziren. Luze hitzegin zuten elkarrekin eta hitzegindakoak zinta batean grabatu zituzten. Ordu betez benetako telebista aurkezle bihurtu ziren, horren lekuko, asteazkeneko programa berezia. ATBko aurkezle gazteenak asteazkenean 9.30etan ikusi ahal izango dituzue.



• KOMIKIA •



Zoguzar.

SANTA AGEDA BEZPERA DEEEGUU...
EUSKAL HERRIKO EGUNAAA...

BA NIGATIK BEZPERA ETA ONDOREN BERTAN GELDITU HEIKE XELEBRIOI!!

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

• SOLUZIOAK •

Horizontalak: 1. Ilunabar, 9. Kera mika, 10. Ehiza, 11. Ri, 12. Ioka, 15. Lau, 16. Ete, 17. At, 18. Burel, 19. Numeral.
Bertikalak: 1. Ikerlan, 2. Lehiatu, 3. Uri, 4. Nazl, 5. Amateurr, 6. Bi, 7. Ak, 8. Rafael, 13. Otrra, 14. Kiel, 18. Be. Ane.
Jeroglifkoa:

• PROGRAMAZIOA •



2 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
9.30etan
Astebete
Gaia: Intsumisia eta udal intsumituak.
Gonbidatuak: Lutxi Arregi, intsumitua eta Roke Iñarra, Antzuolako alkate ohia.

5 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

6 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

7 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Txatxilipurdiren programa

8 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Elkartean" saioa, Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrekin aurkeztuta.
Elkartea: Loramendi

9 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Etxebizitzak

- **Garajea salgai Gurutze Txikin.** San Andres. Tfnoa: 79 26 89.
- **Irakaslea pisu txiki baten baten bila dabil.** Jantzita ez badago ere balio du. Tfnoa: 79 01 32 (Utzi mezua).
- **Erdialdean pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Logela alokagai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Deustu-San Inazio** inguruko pisuren batean lekurik baduzu dei egin 79 34 58 tfnora. Aitor.
- **Garaje itxia alokagai Kontzezino kalean.** Tfnoa: 79 37 67.
- **Labastidan etxe adosatua salgai.** Bi solairu, garaje eta txokoz. Berogailua eta erdi jantzita. Tfnoa: (941) 12 33 75. Arratsaldez.
- **Mutil bat gela baten bila dabil Arrasaten.** Tfnoa: 71 42 00, 230 luzapena. Pablo.
- **Pisua alokatzen da Arrasaten.** Tfnoa: (94) 682 04 78

Lana

- **Jostuna behar da denda baten erroa konpontzeko.** Bidali datuak Arrasateko 259 posta-kutxatilara.
- **Lortu musika taldea ezkontzetan jotzeko gertu.** Tfnoa: 79 46 86. Txapel.
- **Neska gaztea umeak zaindu,** etxeko lanak edo lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 37 09.
- **Promotora batek kapitala jarriko duen arkitektu bat behar du.** Dei egin ordu batetik hiru-ereta 79 03 80 tfnora. Prieto.
- **Geriatría eta klinika laguntzaileak** arazoak dituz-

ten umeak eta nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 09.

- **Ingeleseko klase partikularrak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 40 06.
- **Arratsaldez edozein lanerako** neska euskalduna prest. Tfnoa: 79 81 25. Dei egin gaueko 10etatik aurrera.
- **Ileapaintzaile esperientziadun** diplomaduna lana egiteko prest. Tfnoa: 79 70 45.
- **Dekorazio diseinatzailea behar da.** Tfnoa: 79 21 26.
- **Komertziala behar da.** Tfnoa: 79 21 26.
- **Asteburután kanguro lana** egingo nuko. Tfnoa: 79 73 01. Olga.
- **Euskara, gaztelania** eta ingelesezko klase partikularrak behar dira. Tfnoa: 79 25 49. Iluntzean. Gorka.
- **Kontabilitate eskolak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 39 11. Goizez dei egin.
- **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 77 94.
- **Euskara eta gaztelaniako** itzultzailea behar du. Tfnoa: 77 04 98.
- **Bulegoak, etxebizitzak,** edo atarteak garbitzeko gertu. Tfnoa: 77 09 56.
- **Andra gereontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Neska gertu arratsaldez umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Irlandatik etorri berria** ingelesezko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 21 56.
- **Neska prest umeak zaindu** edo etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Bi neska gertu larunbatetan** etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 38 48 edo 77 01 39.

• **24 urteko neska euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Esperientziaduna eta informeeikin. Tfnoa: 79 37 82. Pili.

• **Esperientziadun neska** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 71 44 27. Rakel.

Salerosketak

- **Baby-Comfort kapota kotxea salgai.** Aulkia ere badauka. Bi urte baino ez du. Tfnoa: 44 53 68.
- **Montesa Cota 3-10 trialeko motorra saltzen dut.** Tfnoa: 79 97 72.
- **Trabesiako skia egiteko botak salgai.** Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilia. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirrinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.
- **Ski ekipo osoa salgai.** Salomon 875 fijazioak, Volk Super Competition tablak eta Koflach botak. Tfnoa: 79 47 48. Gaueko 8.30etatik 9.30etara.
- **Etxeko altzariak,** elektrogailuak eta egurrezko minbrezko gauzak salgai. Tfnoa: 77 09 66. Arratsaldez eta gauez. Utzi mezua.
- **"De brie" artzai txakurkumeak salgai.** Marroiak edo beltzak. Tfnoa: 77 08 51.

Denetarik

- **Etxaguenen Gore-Tex eko txamarra bat** eta eskalatzeko soka bat aurkitu nituen. Tfnoa: 79 04 80.
- **Posterrak egiten ikasteko ikastaroa.** Ixa-lxe komiki taldeak antolatuta. Asteazkenetan 6etatik aurrera Aste Santura arte. Izenematea AEDn. Tfnoa: 77 12 28. Dohainik.

Aste Gazte

Lana

• Osakidetzak, ondoko lanpostu hutsak betetzeko deialdia egin du. a) Lehen mailako Laguntzako Lantaldeetako O.L.T./E.D.U.; b) Ospitaleko eta Ospitalez kanpoko Osasun Mentaleko O.L.T./E.D.U.; c) Lan Osasun Unitateetako O.L.T./E.D.U.; d) Administrari Laguntzaileak; e) Erizaintzako Laguntzaileak; f) Lehen Mailako Laguntzako Lantaldeetako Farmazeutikoak; g) Fisikoa; h) Pediatria-Puerikultura Espezialitateko medikuak; i) Espezialitate Ezberdineko Arlo-

ko Fakultatibo Espezialistak; j) Fisioterapeutak; k) Osasun Erakundeetako Teknikari Espezialistak; l) Asistentzia Obstetrikoginekologikoan diplomatutako O.L.T./E.D.U. (emaginak); m) Osasun kudeaketa unitateetarako medikuak; n) Etxeko Ospitalizazio unitateetako medikuak; ñ) Lehen Mailako Laguntza Lantaldeetako Medikuntza Orokorreko Medikuak; o) Ospitaleetako larrialdi zerbitzuetako medikuak; p) Lan Osasun unitateetako Medikuak; q) Lehen Mailako Laguntzako Lantaldeetako

Odontologoak. Guztien epea: otsailak 22.


Bekak

• Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundeak "Renato Treves" bekaren deia egin du (masterra). Soziologian, Zuzenbidean zein interesa duen beste edozein lizentziadunei zuzenduta dago. Ingelesa menperatzea derrigorrezkoa da. Epea: otsailak 29.

Lehiaketak

• Donostiako Udalak bi kartel lehiaketa kaleratu du. a) "Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna". b) "Donostiako 31. janzaldia. Uztailak 24-28, 1996". Bien epea: otsailak 9.

"Bere gaztaroan bizia izandakoa zen... esperientziak bilatzen zituen, bizitzarekin jolasten zuen".
NIGEL NICOLSON
"PORTRAIT OF A MARIAGE"



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



Pertsonak formatzen ditugu.
Bi urtetik aurrera.

Zer nahi, huraxe izan!

Matrikula irekita otsailaren 1etik 20ra




SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA
INFORMAZIO SAILA
900. 10 80 80

Otalora Lizentiatua, 8 Arrasate



APRESKI BOTAK

Bat 2.000 pta.
Bi 3.000 pta.



TXANDALAK

Bat 6.000 pta.
Bi 11.000 pta.



KAZADORAK

Bat 5.000 pta.
Bi 9.000 pta.



SUDADERAK

Bat 3.000 pta.
Bi 5.000 pta.



ESKIATZEKO PRAKAK

5.995 pta.



KAZADORA TEKNIKOAK

Bat 10.000 pta.
Bi 18.000 pta.

